

AUTOMOZIOA 2. maila

2022-2023 kurtsoa

Ibilgailuen kudeaketa eta logistika

2.1 Erronka. Tailerreko mantenua eta
funtzionamendu gida



ARETXABAETA
Lanbide Eskola

Lanbide Heziketako
Ikastetxe Integratua

www.ale-aretxabaeta.eus

AURKIBIDEA

Ibilgailuen mantentze prozesuak

1. Tailerren sailkapena
 - 1.1. Tailer motak
 - 1.2. Banaketa fisikoa
 - 1.3. Gutxieneko ekipamendua
 - 1.4. Instalakuntzak
 - 1.5. Tailerraren neurriak



TAILER MOTAK: jardueraren araberakoa

- Elektromekanika tailerra
- Berehalako zerbitzuak
- Karrozeria. Txapa eta pintura
- Ibilgailuak garbitzeko
- Neumatikoak
- Beira aldaketa edo tintaketa
- Audio eta tuning instalazioa
- Ibilgailu industrialak




TAILER MOTAK: ofizialtasunaren araberakoa

- Marka ofizial baten tailerra
- Tailer independenteak



TAILER MOTAK: neurriaren araberakoa


- Txikia: Auzokoa, langile bakarra orokorrean
- Ertaina: Herri kanpoan (poligono, merkatal-guneak), langile gehiago (10)
- Handia: Hiri sarreretan, langile asko. Kontzesionarioak



BANAKETA FISIKOA

Neurriaren arabera gune batzuk soilik edo denak izango ditu:

- Erakusketa eta salmenta
- Ordezko elementuen biltegia
- Aldagela eta komunak
- Sarrera ezberdinak
- Ibilgailuen parkina
- Irteera ezberdinak
- Harrera
- Bulegoak
- Biltegi orokorra



GUTXIENEKO EKIPAMENDUA

Tailer motaren arabera gutxieneko ekipamendu eta erremintak aldatuko dira.

- Erremintak
- Auto igogailuak
- Bankada
- Pintura kabina
- Etb...



INSTALAKUNTZAK

Lan egingo den sektorearen arabera instalakuntza konkretu batzuk izango ditu, garrantzitsuenak:


- Pneumatikoa
- Instalazio elektrikoa
- Argiteria
- Ke erauztea eta aireztapena
- Ura



TAILERRAREN NEURRIAK

Tailerra ireki aurretik merkatu azterketa bat egin behar da:

- Auzo edo herriaren biztanle kopurua
- Jarduera bera duten lantegi kopurua
- Auzoan edo herrian dagoen ibilgailu-banaketa, markari dagokionez
- Auzo edo herriko lantegien batazbesteko fakturazioa



TAILERRAREN NEURRIAK

Ireki nahi dugun tailerraren kokapena egokia dela ziurtatu ostean, lantegiaren dimentsionaketa egiteko hainbat kalkulu egin behar dira. Hasteko, ondorengo datuak jakin behar dira:

- Urteko lan ordu kopuru totala ezagutu behar dugu (Gipuzkoan hitzarmenak 1727 ordu = 216 lan egun).
- Urtean tailerretik pasatzen diren ibilgailu kopuru totala

TAILERRAREN NEURRIAK

Urteko lan egun kopurua eta urtean tailerretik pasatzen den auto kopurua jakinda, egunean egingo diren konponketa kopurua kalkula daiteke:

$$ekk = \frac{ukk}{ule}$$

ekk = eguneko konponketa-kopurua

ukk = urteko konponketa-kopurua

TAILERRAREN NEURRIAK

“Unitate produktiboen kopurua” delakoak tailerrak beharko luken langile kopurua adierazten du:

$$upk = \frac{ekk \cdot kbd}{eok}$$

upk = unitate produktiboen kopurua

kbd = konponketako batez besteko denbora

Konponketen bataz-besteko denbora balio oso aldakorra da, langileak ekoizten duenaren datu estatistiko bat baita

TAILERRAREN NEURRIAK

Tailerreko lanpostu guneak kalkulatzeko ordea, ez da bakarrik tailerreko lana ateratzeko adinako beharrezko langile kopurua kontuan hartzen, koefiziente batekin biderkatzen da.

lanpostuak = koefz. X langile kopurua

TAILERRAREN NEURRIAK

- Ibilgailuen igarobideek 4 metroko zabalera eduki behar dute, gutxienez. Arrazoi horregatik, lantegiaren azalera 1,4-1,6 bitarteko koefiziente batekin biderkatu behar dugu.
- Makinak, jasogailuak, gainazalak prestatzeko eremuak, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa prestatzekoak eta antzekoek osatzen duten espazioari *makineriaren eremu* esaten zaio. Horietako bakoitzak 30 m²-ko azalera izan behar du, gutxienez.
- Pintura-kabinak 40 m²-ko azalera izan behar du, gutxienez.
- Langile bakoitzaren konponketetarako lan-eremuak 35 m²-ko azalera izan behar du, gutxienez.
- Aurrez aipatutako biderkatze-koefiziente guztiak koherentziaz erabili behar dira. Lehenengo, balio minimoekin kalkulatu behar da azalera; ondoren, balio maximoekin berdina egingo dugu. Era horretara, zein tartetan mugi gaitzkeen jakingo dugu.

TAILERRAREN NEURRIAK

LANTEGIKO BESTE EREMUAK KALKULATZEKO:

$$HLA = HGA + IGA$$

HLA = Harrera-lekuaren azalera

HGA = Harreragile bakoitzaren lan-eremua (10 m² gomendatzen da harreragileko)

IGA = Itzarongelaren azalera (15 m² gomendatzen da)

TAILERRAREN NEURRIAK

LANTEGIKO BESTE EREMUAK KALKULATZEKO:

$$KIA = LPK \cdot IMA$$

KIA = Konponduta edo konpontzeko dauden ibilgailuen aparkalekua

LPK = Lanpostu-kopurua

IMA = Ibilgailu bat mugitzeko gutxieneko azalera (30 m² gomendatzen da)

TAILERRAREN NEURRIAK

LANTEGIKO BESTE EREMUAK KALKULATZEKO:

$$LAO = OPE + HLA + EME + KIA$$

LAO = Lantegiaren azalera osoa

OPE = Ordezko piezen eremua

HLA = Harrera-lekuaren azalera

EME = Elektromekanika-eremuaren azalera

KIA = Konponduta edo konpontzeko dauden ibilgailuen aparkalekua

- Aurretik aipatutako moduan, ibilgailuak igarotzeko eremuak 4 m-ko zabal izan behar du gutxienez. Hori dela eta, KIA 1,4-1,6 bitarteko koefiziente batekin biderkatu behar dugu, aparkalekuen azalera osoa (AAO) egokia izan dadin.
- Lantegiak ordezko piezen eremua badu, lantegiaren azalera osoaren % 30 izatea gomendatzen da.


ERABAKI ETORKIZUNA


ALE-ko Tfonoa: 943 797 900 / 943 797 943

www.ale-aretxabaleta.eus

 @AretxabaletaLE

 @AretxabaletaLE

 @aretxabaletalanbideskola

 ALE Aretxabaleta Lanbide Eskola

 Aretxabaleta Lanbide Eskola

ALE

ARETXABAleta

Lanbide Eskola

Lanbide Heziketako
Ikastetxe Integratua